

Oriarteko pintaketak gaitzetsi dituzte

Berrehun bat lagunek bat egin dute aSunak neska* gazteen taldeak deitutako elkarretaratzearekin, Okendo plazan. Udal korporazioak adierazpen instituzional bat kaleratu du / 9

Erdi aroko giroa hartuko dute Andatza eta Aralar plazek, hilaren 17tik 19ra, Xacobeo azokan / 6

Txema Pikabearen 'Lía' nobela beltza saritu dute: Primeros Premios Letrame 2021 garaikurra jaso du / 7

Donostia Arraun Lagunak eskifaiak garaipen historikoa lortu du Kontxako Banderako lehian / 10

Lasarte-Oriako III. Mendi Festak familiei zuzendutako Ttipi-ttapa ibilbidea berreskuratuko du / 11



Naturarekin bat

Aste Berdea hasteko, baso bainua ekimena egin dute Zumaburu parkean / 3

TXINTXARRI


2021-2022 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

A1 eta A2 tituluak euskaltegian bertan lortzen dira.
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: IRAILAREN 23TIK EKAINAREN 23RA

- Astelehenetik ostegunera. Astean hamar ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 09:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- On-line (BOGA).
- 16 urtetik gorakoentzat.

MATRIKULA ZABALIK
IRAILAREN 22RA ARTE



DIRULAGUNTZAK BADAUDE.
GALDETU BALDINTZAK



Argazkian ikus daitekeena da Michelin II lursailak gaur egun duen itxura. TXINTXARRI

Michelin II eremua hizpide, udalbatzarrean

Lasarte-Oriako mugen barruko lursailean merkataritza gun bat eraikitzeke urrats bat gehiago egin du udalbatzarrek: hiri antolamenduko plana onartu du, PSE-EE eta EAJren aldeko bozkekin. Saio laburra izan da iraillekoa, ordu erdi ingurukoa

Txintxarri

Abuztuko oporraldiaren ostean, Lasarte-Oriari lotutako hainbat kontu jorratu ditu udal korporazioak iraileko ohiko saioan. Kontu-hartzaileak aurreko ekitaldian egindako erreparatu txostenen berri eman ostean, kredituak aldatzeko espedienteak onartu ditu udalbatzarrek, aho batez. Horren ostean, Lasarte-Oriako eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduerak sustatzeko laguntzak onartu dituzte; zehazki, horiek arautuko dituzten oinarriak. Ondoren, Michelin II eremuaren hiri antolamenduko plana "behin betiko" onartu du udalbatzarrek, PSE-EE eta EAJren aldeko bozkekin. Aurkako iritzia eman du EH Bilduk, eta abstenitu egin da Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos (ELOP).

Michelin II eremuaren egitasmoa "galdutako aukera" dela uste du EH Bilduk, hastapenetan industrialde bat eraikitzea zelako asmoa, baina

azkenean udal gobernuak eta Michelinek berak merkataritza gun bat eraikitzearen alde egin dutelako. "Udal gobernuaren ambizio faltaren eta ezgaitasunaren ondorioa da hori; azpimarratu behar da lur zati hori besterik ez duela libre Lasarte-Oriak erabilera industrial sustatu ahal izateko". Hori dela eta, aurka bozkatzea erabaki du.

ELOP, berriz, abstenitu egin da. "Enplegua sustatu dezakeela uste dugu eta baloratzen dugu hori, baina zalantzak ditugu; ziurrenik, ez dira kalitatezko enpleguak izango. Enpresak etekin ekonomikoa aterako duela argi ikusten dugu, baina, herritarrek lor dezaketelako onura, ez".

EAJk behin baino gehiagotan erakutsi du alde dagoela, eta ez du iritziz aldatu udalbatzarrean. Edonola ere, jeltzaleek uste dute Plaincorekin (lur eremuaren jabearekin) bere garaian sinatutako hitzarmena berrikusi egin behar dela, eta hizkuntzari buruzko klausula batzuk aldatu.

Galderak eta erreguak

ELOP eta EAJ alderdiek galdera eta erregun bana egin dizkiote udal gobernuari, hurrenez hurren. Atsotakar egoitzan "gabezia batzuk" identifikatu direla eta, udal gobernuak eskutitza bidali zion Kabiari, eraikina kudeatzen duenari, eta ELOPek jakin nahi izan du ea erantzunik jaso duen. Lourdes Acevedok (PSE-EE) baietz esan du: "Kabiak esan digu joan dela egoitzara egoera ikustera, eta ikertu beharreako ikertuko zutela. Zehaztapen gehiago dituztenean abisatuko gaituztela".

Jeltzaleek udal gobernuari proposatu diote Nahia Zudaire igerilariari harrera ekitaldia egitea Lasarte-Orian, abuztuan Maialen Chourrautekin egin bezala. Horren aurrean, Agustin Valdivia alkateak (PSE-EE) erantzun du aitortza egiteko asmotan ari direla, baina Zudaire oporretara joan dela bi astez, eta itzultzen denean burutuko dutela omenalditxoa.



Udal ordezkariak eta Artelatzekoa, Mugikortasun Astearen aurkezpenean. TXINTXARRI

Mugikortasun jasangarriaren alde kontzientziatzeko astea

Hiru eguneko egitaraua aurkeztu dute. Adin eta gustu guztientzako jardueretan parte hartzeko aukera izango da

Txintxarri

Europako Mugikortasun Astearekin bat egingo du aurten ere Lasarte-Oriako Udala. Artelatzen enpresa arduratuko da aurten ere egitasmoa ekimenak antolatzeaz, nahiz eta, aurreko urteetan ez bezala, zenbait udal departamentuk elkarlanean emango dituzte ekintza bat baino gehiago aurrera. Irailaren 21etik 24ra bitarte izango dute aukera herritarrek, antolatu

dituzten hainbat ekintzetan parte hartzeko. Bizikleta martxa, kale-jolasak eta bizikleten bigarren eskuko azoka izango dira ekintzetako batzuk. Horiez gain, Mugikortasunaren Europako Egunean, irailak 24, Muittu Mantangorri hiribusaren zerbitzua doakoa izango dela iragarri dute, eta zenbait berrikuntza ere izango dira aurtengo egitarauan; irakurketa txokoa, besteak beste.

Mugikortasun Asteko egitaraua

Irailaren 21a, asteartea

- **10:30ean, Kontzeju Txiki plazan:** Nagusien parkeko makinak erabiltzeko aholkularitza zerbitzua (kiroldegiekin elkarlanean antolatua).

Irailaren 22a, asteazkena

- **Hiribusa dohainik:** Egun osoan zehar, Muittu Mantangorri hiribusa doakoa izango da, Europako Mugikortasun Eguna izaki.

Irailaren 24a, ostirala

- **15:45etik 16:15era, Okendo plazan:** Bizikleta martxak. Luzera ezberdineko bi zirkuitu antolatuko dituzte, eta ibilbideak amaitu ostean, bizikletekin egiteko jolasak egingo dira. Ohartarazi dutenez, norberak bere bizikletarekin joan behar du.
- **17:00etan, Kale Nagusian:** Kaleak jolaserako. Aisialdiko jolasak, herri kirolak, eta abar egingo dituzte. Ohiko ibilgailuen trafikoa etenda egongo da.
- **18:00etan, Kale Nagusian:** Ostadar SKT taldearekin elkarlanean, ipar martxako erakustaldia egingo dute.
- **16:30etik 20:00etara, Okendo plazan:** Bigarren eskuko bizikleten merkata egingo dute. Azoka horretan parte hartzeko aurrez izena ematea derrigorrezkoa izango da, eta, horretarako, 943-67 02 49 telefono zenbakira deitu behar da. Edukiera mugatua izango da.
- **Informazio puntua, Okendo plazan:** Mugikortasuna eta teknologia berriak.

Naturarekin bat egin, barne oreka lortzeko

Artelatzen eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako Aste Berdea hasteko, baso bainua ekimena egin dute Zumaburu parkean. Japonian sortutako jarduera honek zentzumenen bidez izadiarekiko harremana sustatzen du, estresa edota antsietatea murriztuz

Txintxarri

Arreta piztu, ingurura bideratu, eta ongizatea handituko duen horri erreparatu. Simplea dirudien ariketa hori egiteko aukera izan zuen irailaren 10ean baso bainuan parte hartu zuen herritar taldeak. Jarduera udalak eta Artelatzen Ingurumen Zerbitzuak-ek antolatutako Aste Berdeko lehena izan zen; hurrengo hilaren 25ean, larunbata, gauzatuko dute: Oria ibaiertzaren garbiketa.

Udaletxe berriaren atarian elkartu, eta handik abiatu zuten bi orduz luzatuko zen osteratsoa. Bidean zenbaitetan gelditu ziren gidari lana egin zuen Amaiak luzatutako proposamenei eusteko. Lehena abiatu berri jaso zuten. Askatasuna parkeko belargune batera igo, eta dinamikaren berri emateaz gain, arduradunak eskaera bat egin zuten hamasei lagunei: helbururik edo mugarik ez ezartzeko.

Ura, ardatz

Shinrin-yoku edo baso bainua Japoniatik datorren jarduera bat da, zentzumenen bidez naturaz gozatzeko xede duena, hau da, beste ikuspuntu batetik izadian murgiltzea, harekin bat egitea. Onuren artean, estresa eta antsietatea murrizten laguntzen du. Blaitzen hasteko, tentsioa



Zumaburu parkean ukimena landu zuten partaideek hostoak baliatuta. TXINTXARRI

askatu zuten gorputza astinduta, eta norberak bere burua aurkeztu zuen izena eta gustuko duen zuhaitz bat esanda.

Lasarte hitzaren esanahiari –"erreka artean"– helduta, ura izan zen bide-orrria. Ibai ertzetik, Zumaburu parkean jo zutenean, begirada luzatzeko eta entzumenari erreparatzeko eskatu zuten gidariak, "dualitatea" hitza kontuan hartzeko eta bi alboei kasu egiteko. Helmugara bidean, uraren eta txorien doinua gailentzen joan zen, eta natura nagusitzen. Zorioneko ezusteko bat ere izan

zuten: koartza gorri eta koartza hausgara bana ikusi zuten.

Parkean, irla izatetik egungora heldu arte inguruak jasadako bilakaera kontatu zuten Artelatzen kideak. Behin kokatuta, beste zeregin bat izan zuten partaideek: hosto bat aukeratu, eta eskuarekin alderatzea; antzekotasunez jabetzeko eta ukimena ere lantzeko. Usaimena, berriz, aromaterapiaren bidez piztu zuten, zenbait olio erabilita. Bost zentzumenak prest zituztela, zuhaitz artean barneratzen joan ziren, inguruan murgiltzen, eta naturaz bustitzen.

Eskola materiala erosteko laguntzak eskatu daitezke

Epea urriaren 1ean amaituko da. 50 eta 110 euro artean jaso ditzakete eskatzaileek, dituzten diru sarreraren arabera

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 15.000 euro bideratu ditu 2021-2022 kurtsorako ikasmateriala erosi behar duten familiei laguntzeko. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Erdi Mailako zein Batxilergoko ikasleei

zuzenduta daude ekarpen ekonomikoak. 25.000 euro baino gutxiagoko sarrerak dituztenek, 110 euro jaso ditzakete; 25.001 eta 33.000 euro artekoak dituztenek, 90 euro; eta 33.001 eta 40.000 euro artekoak dituztenek, 50 euro.

Ikasleak edozein udalerritan eskolatuak izanda ere, materiala herriko dendetan erosi beharko dute, dirulaguntza jaso nahi badute gero. Ekarpina jasotzeko eskaera egiterakoan, erosketa horien fakturak –2021eko uztailearen 1etik irailaren 30era bitartean eginak izan behar dute– atxiki beharko zaizkio dokumentuari, ezinbestean. Tramitazioa digitalki egiteko asmoa dutenek agiriak eskaneatu edo elektronikoki "behar bezala" sinatu beharko dituztela azaldu du udalak.



NEURE KABUZ

MAITANE REBE

Denbora

Lehengoan amonarekin hizketan egon ondoren, pentsakor joan nintzen etxera. Bizitzaz eta bizitzeaz aritu ginen solasean. Amonak zera aitortu zidan: "Zu bezain gazte izan nahiko nuke berriro...bizitzeko...". Klik egin zidan buruak.

Etxera iristean, amonak utzitako kezka horren inguruan hausnartzen ari nintzela esan nion amari: "Ez dut amona bezala izan nahi. Zaharra naizenean, atzera begiratu eta bizi dudala sentitu nahi dut". "Zuk bi bizitza bizitzen dituzu jada", klik egin zidan buruak berriro. Ezustean harrapatu ninduten amaren hitzek. Bi bizitza? Zergatik?

Bizitzeko denbora muga batekin jaiotzen gara. Izan ere, denbora ezin izango dugu berreskuratu, ez da inoiz bueltatuko, eta gu geu gara bizitzari mugak jartzeko dizkiogun bakarrik. Egiten duguna egiten dugula, erabakitzen duguna erabakitzen dugula, kontuan izan behar dugu momentu hori bakarrik dela, eta ez dela itzuliko. Beraz, denbora zertan eta zeinekin "xahutzen" dugun jakin behar dugu.

Denbora eraginkorki erabili behar dugu, helburu bat jarraituz. Horrek ez du esan nahi egunerokotasunean gure denbora ahalik eta jarduera gehien egiteko erabili behar dugunik. Izan ere, atsedean egun batez gozatzeko ere bere helburua du, eta ez dugu zertan denbora galtzearen ideiarekin lotu behar.

Bizitzeko gakoa denbora norberarengan inbertitzean dago. Daukaguna aintzat hartzen jakin behar dugu, momentu onez eta bizitzaz gozatu behar dugu. Erlojuari loturik bizi gara, gatibu. Denbora gelditzeko, pasatzeko eta xahutzeko gai garela sentitzen dugu, baina ez gara ohartzen denbora dela gu maneiatzen gaituena.

"Denbora urrezkoa da" esaten ohi dugu. Eta ez, ez da urrea. Denbora bizitza da, eta bizitzen ikasi behar dugu. Gauza asko egiteko gai gara, mugitu egiten gara, eta larriturik goaz alde batetik bestera, baina ez dakigu bizitzen. John Lennonek esan zuen bezala, bizitza beste gauza batzuk egiten zauden bitartean igarotzen dena da.

Hausnarketarako galdera pare bat, une batean pausatu eta guretzako denbora hartzeko. Galdetu diezaiozun gure buruari: Zertarako bizitzen gara? Zertarako gaude bizirik?

Izakiak finituak gara, halaberrez igaro den denboran murgildurik gaudenak. Bizitzak 86.400 segundo oparitzen dizkigu egunero. Baina bata bestearen atzetik pasatzen dira, isilik, gu ia ohartu gabe. Eta une batean konturatzen gara denborak ez duela soilik aurrera egiten, azkarregi igarotzen ari dela baizik.

Eta ez ama, ez ditut bi bizitza bizitzen. Bizitza bizitzen ari naiz, bat bakarrik eta neurea.

Berorekatu

Berreskuratu

Birsortu



IKASTURTE BERRIA AZALA BERRITUA



MAITE

ESTETIKA ARETOA

Aurpegi eta gorpuzeko tratamenduak

Ehunen birsortzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean

Uislin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria



Aterpea merkatarien elkarteko kideak eta alkatea Josema burdindegian, kanpaina aurkezteko ekitaldian. TXINTXARRI

3.000 euro saritan, fidelitasuna saritzeko

Irailaren 20tik urriaren 1era herriko establezimenduetan egindako erosketak sarituko ditu Aterpearen Bezeroaren Hamabostaldia kanpaina berriak. Epealdi hori amaituta, urriaren 6an egingo dute zozka, eta hilabete izango dute sarituek erosketa bonuak erabiltzeko

Txintxarri

Aterpea merkatarien elkarteak ikasturteko bigarren kanpainaren aurkezpen ekitaldia egin du. Josema burdindegian atarian battu dira elkarteko zenbait kide, Agustin Valdivia alkatea lagunduta, hilaren 20an abiatuko duten Bezeroaren Hamabostaldiaren xehetasunen berri emateko. Kanpaina Lasarte-Oriako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduetan egingo da; guztira 78 negoziok parte hartuko dute. Horietan erosten edo kontsumitzen duten herritarren artean, 500 euroko bi erosketa-bonu eta 250 euroko beste zortzi zozkatuko dituztela iragarri dute; guztiak 10 euroko txarteletan. Hain zuzen ere, erosketa bonu bakoitza erabiltzeko gutxieneko erosketa 10 eurokoa izango da.

Kanpainaren xede nagusiaren berri eman du Miguel Angel Prieto elkarteko lehendakariak: "Bezeroak erakartzea eta udalerriko establezimenduetan

kontsumoa dinamizatzea da helburua". Ikasturte berriak aurrera egin ahala aurkeztuko dituzten kanpainei adi egoteko deia ere egin du.

Zozkatarako txarteltxoak

Irailaren 20an hasi eta urriaren 1ean amaituko da Bezeroaren Hamabostaldia, eta, denbora tarte horretan kanpainarekin bat egin duten establezimenduetan kontsumitzen duten bezeroek, zozkan parte hartzeko txarteltxo batzuk eskuratuko dituzte. Horietan izen-abizenak eta telefono zenbaki bat adierazi beharko dituzte. Zozkan garaile irtetzen diren herritarrekin harremanetan

500 EUROKO BI EROSKETA BONU ETA 250 EUROKO ZORTZI ZOZKATUKO DITUZTE BEZEROEN ARTEAN

jartzeko bilduko dituzte datu horiek.

Zozkaren data ere iragarri dute; urriaren 6an, asteazkena, izango da, Mirentxun, eta erosketa-bonuak erabiltzeko hilabeteko epea izango dute sarituek (azaroaren 6ra arte).

Udala eta Aterpea

Agustin Valdivia alkatea dei egin die herritarrei kanpainarekin bat egin eta herriko merkataritzan kontsumitu dezaten. Bide batez, balioan jarri du merkatarien elkarteak egiten duen lana, eta eskerrak eman dizkie herriko komertzioaren alde egiten duten lanagatik.

HERRITARRAK HERRIKO KOMERTZIOETAN EROSTERA DEITU DITUZTE

Teknologia berrietan sakontzeko aukera irailean eta urrian zehar

Eskaintza oparoa prestatu du KZGuneak. Libre dauden tokiei buruz galdetzeko eskatu die lasarteoritarrei

Txintxarri

Irailean eta urrian zehar teknologia berriei lotura duten saio ugari egin ditzakete lasarteoritarrek, aurrez aurre edo bideokonferentzia bidez. Orotara, hamar alor jorratuko ditu KZGuneak hilabete zehar, eta makina bat ikastaro eskainiko ditu. Horietatik gehienak gaztelaniaz izango dira, eta euskaraz besteak. Ikastaro gehienak pare bat egunetan egiteko modukoak dira, lau ordukoak.

Administrazio digitala; aisia eta entretenimendua; enplegu bilaketa; irudia eta bideoa; komunikazioa; ofimatika; oinarriko formakuntza; produktibitatea; sare sozialak; eta segurtasuna. Hamar alor horien gainekoak izango dira KZGuneak irailean egiten ari den eta urrian eskainiko dituen saioak. Izena eman nahi duten herritarrei honako gomendio hau egin diete antolatzaileek: ikastaro bakoitzean libre dauden tokiak zenbat diren kontsultatzea. Horretarako, www.kzguna.net web atarian sartu beharko dute interesa dutenek, edo Sasoeta auzoko Gaztelekura joan, eta

galdetu. Helbidea, hauxe: Jaizkibel plaza, 14. Kontsultaren bat egin nahi izanez gero, 943-02 36 60 telefono zenbakira deitu daiteke, edo tutor.lasarte@kzguna.net helbide elektronikora idatzi.

Aurrez esan bezala, ikastaro ia guztiak lau ordukoak izango dira, eta bi egun iraungo dute: saio bakoitza bi orduko izango da, ordu tarte hauekaren batean: 09:00etatik 11:00etara, 11:00etatik 13:00era, 16:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 20:00etara.

Gaztelekuko entsegu gelak

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du herriz irekiko dituela Gaztelekuan dauden entseutzeko gelak, herriko taldeek erreserba eta erabil ditzaten. Izena eman nahi dutenek irailaren 30era arteko epea dute, ostegunarekin. Aretoetako bat eskatu nahi dutenek udal instantzia bat bete beharko dute, eta zenbait datu pertsonal eman: taldearen eta partaideen izenak, besteak beste.

Udalak izen emate horiek kudeatuko ditu, eta interesa azaldu duten taldeak bilera batera deituko ditu, gela erabilera kudeatze aldera.



TXINTXARRI

Neguko ordutegia indarrean da

Udako ordutegia atzean utzi, eta neguko sartu da indarrean Euskotreneko bidaia lerro guztietan. E2 deritzonean, Lasarte-Oriatik Hendaiara doanean, hauek dira kontuan izan beharrekoak: ordu tarte osoan ordu erdirokoa izango da maiztasuna. Lanegunetan, Irun eta Lasarte-Oria arteko trenak hamabost minuturo ibiliko dira, bi noranzkoetan, egun osoan zehar.

bezeroaren hamabostaldia

3.000€

saritan

Lasarte - Oria 2021

Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian irailaren 20tik urriaren 1era, eta parte har ezazu erosketa bonuen zozketan.

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda.

ALBA MODA

MERCERÍA ARITZA

ARKUPE TABERNA

BAZAR ABREU

BIDEO LAGUNAK

CARREFOUR EXPRESS

CLINICA DENTAL ALDAZ

NOGUES MODA

ELECTRICIDAD ARREGUI

FERRETERÍA SUKOA

GESTORÍA BETELU

MAYA LENTZERIA

MERCERÍA OLMÍ

URRIZOLA MERTZERIA

NOAOA BIDAIAK

ÓPTICA LIZARRI

ORBELA EKODENDA

ORMAZABAL LORADENDA

PERFUMERIA MAIANE

SANTANA INFORMÁTICA

VENTANAS ALCAR

VENTANAS ISU LEIHOAK

ZAPATERÍA ITURBE

OSTEOPATIA NOELIA CALERO

CAFÉ-BAR BUENETXEA

ARAETA SAGARDOTEGIA

AVENIDA TABERNA

MULTIOPTICAS LASARTE

FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA

BAR LASARTE

ZUBIETA MOTOR

VIÑA DEL MAR KAFETEGIA

OLA ENMARCACIÓN

BERASATEGI KAFEAK

PELUQUERIA MAY

PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA

ADMINISTRACION DE FINCAS MILLA

PUERTAS Y VENTANAS ZURLAN

TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK

NATURHOUSE

ORUE BOTIKA

PELUQUERÍA MARBELL

LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL

MASAJISTA RAKEL

ARTESANÍA INÉS FLORES

OIHANA ESTETIKA

DOAL SALUD

ARTSIER FOTÓGRAFO

PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA

HALCÓN VIAJES

CLÍNICA PODOLÓGICA AMAIA OLONDRIS

SILVIA LUIS ARBIZU ADMON. DE FINCAS

PELUQUERÍA BEA

DECO 75 TEXTIL HOGAR

INMOBILIARIA RK

ADATS ORRAZTEGIA

ÓPTICA IRIGOYEN

MABEL MODA

BIZKER RÓTULOS

CENTRO DE MASAJE KIMA

CALZADOS LEDER

KAIZEN MUEBLE Y DECORACIÓN

DULCE TENTACIÓN

IMAGINE JANTZI DENDA

EGUZKI TABERNA

BAR-CAFETERÍA BUS

NORTH TEAM NUTRIZIOA

MERCERÍA MAUXA

HIRU ALDETA TABERNA

SORAYA GALLEGO MICROPIGMENTACIÓN

COCINAS, BAÑOS Y REFORMAS CLOVER

BAR ORIA-TXIKI

PELUQUERÍA MANI'S

YOGA LASARTE

ADMINISTRACIONES BARDAJI

HAUNE INTERIORISMO

GIMNASIO SAITO

PELUQUERÍA-ESTÉTICA SPLENDOR



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



aterpea



Udal ordezkariak eta Xacobeo MMXXI elkarteko kideek aurkeztu dute Xacobeo azokaren aurtengo edizioa, bosgarrena. TXINTXARRI

Erdi Aroko giroa Andatza eta Aralar plazetan

Urtebeteko etenaldiaren ostean, Erdi Aroan oinarritutako azoka itzuliko da Lasarte-Oriara, baina ez Okendo plazara, Andatza eta Aralar enparantzetara baizik. Postuak, tailerrak, erakusketak, ipuin kontalaria... Hamaika jardueraz gozatu ahalko dute herritarrek ferian

Txintxarri

Bi urteren ostean –iaz ekitaldia ez egitea erabaki zuen Lasarte-Oriako Udalak, COVID-19ak eragindako egoeragatik–, Erdi Arora bidaiatuko du herriak. Ostiraletik igandera, irailaren 17tik 19ra, V. Erdi Aroko Xacobeo Merkaturia izango da Andatza eta Aralar plazetan. Xacobeo MMXXI eta Eventos Globales enpresek

antolatu dute, udalarekin elkarlanean. Hori da aldaketetako bat, aurreko urteetako feriak Okendo plazan eta Kale Nagusian egin baitziren.

"Aurtengo azoka ez da aurrekoen gisakoa izango", ohartarazi du Agustin Valdivia alkateak. "Indarrean dauden osasun neurriak errespetatuko dira". Horren harira, Xacobeo

MMXXI elkarteko arduradun Pedro Carrascok jakinarazi du ferriako gehieneko edukiera 800 pertsonakoa izango dela, eta aforoa uneoro kontrolatuko dutela aplikazio informatiko baten bidez. "Merkatuan egon bitartean, maskara jantzita eramatea derrigorrezkoa izango da, salbuespen batekin: elikadura postuetan jatean edo edatean".

Zehaztu du osasun-neurriak tabernetako berak izango direla: distantzia soziala, mahaiko eseri daitezkeen pertsonak, eta abar. Lasarteoriatarrei gomendatu die olagarroa jateko postura joateko. "Asko gustatuko zaizue".

Egokitutako ekimenak

Aurreko urteetan azokara joan diren herritarrek gogoratuko dituzte hegazti harraparien ikuskizun eta erakusketak, kalez kale zebiltzan musikariak eta malabaristak... Aurten ez da halakorik izango Andatza eta Aralar plazetan, koronabirusa tarteko. Edonola, tailerrak eta jarduerak prestatu dituzte antolatzaileek: ipuin kontalaria, Erdi Aroko lanbideen zein garaiko zaldunen jantzien erakusketak, musika instrumentuen emanaldia, burdingintza tailerra... "Saio horiek guztiak edukiera mugak izango dituzte", esan du Carrascok.

Azokak ostiraletan zabalduko ditu ateak, hilaren 17an, 17:00etan. Larunbateko eta igandeko orduetegiak hauek izango dira: 11:00etatik 23:00etara eta 11:00etatik 21:00etara, hurrenez hurren. "Jende pilaketak sortu ditzaketen jarduerak ez ditugu antolatu; nahiago dugu bisitariak tantaka-tantaka etortzea eta egitasmoa gogoz hartzea, nahiz eta badirudien eguraldiak ez digula lagunduko". Inguruko herrietatik etortzekotan dabiltzanei garraio publikoa erabiltzea gomendatu die Xacobeo MMXXIeko arduradunak. Apainketa lanak burutu dituzte azken egunetan, Kale Nagusitik hasi eta Andatza eta Aralar plazetaraino. "Egia da aurreko urteetan baino jarduera gutxiago izango direla aurten, baina feriari

Kontuan izan beharrekoak

V. Erdi Aroko Xacobeo Azoka ostiraletik igandera izango da, hilaren 17tik 19ra.

Datu batzuk

- **Gehieneko aforoa:** 800 pertsona.
- **Tokia:** Andatza plazan, 50 saltoki; Aralar plazan, tailerrak, ekintzak, erakusketak...

Orduetgia

- **Ostirala 17:** 17:00etatik 23:00etara.
- **Larunbata 18:** 11:00etatik 23:00etara.
- **Igandea 19:** 11:00etatik 21:00etara.

Erdi Aroko giroa ematen saiatu gara, aurten inoiz baino gehiago".

Azokako merkatarien egoera

Carrascok nabarmendu du pandemiak "oso gogor" zigortu dituela Lasarte-Orian izango den azokan eta antzekoetan lan egiten duten merkatariak. "Haien diru-sarrerak izugarri murriztu dira; apenas jaso duten laguntzarik erakundeetatik". Hori dela eta, "irrikaz" daude Xacobeo ferian parte hartzeko. "Eskaera mordoa jaso ditugu, baina, tamalez, guztiak ezin izango dira etorri". Andatza plazan 50 merkatari jarriko dituzte haien produktuak salgai, antolatzaileek zehaztu dutenez. Metro gutxi batzuetara, Aralar enparantzan, tailerrak, jarduerak eta erakusketak aurrera eramango dituzte, besteak beste.

Jantzi tradizionalak egiteko ikastaroak, urrian eta azaroan

Izena eman nahi dutenek Ttakun Kultur Elkartearengana jo behar dute, telefono edo posta elektronikoz bidez

Txintxarri

Ione Artola jostunaren gidaritzapean, Ttakun Kultur Elkarteak jantzi tradizionalak egiten ikasteko bi kurtso eskainiko ditu aurten, urrian eta azaroan. Asteartean eta ostegunetan

izango dira saioak, 15:30etik 17:30era, Emakumeen Zentroan. 695 78 53 89 telefonora deituta edo kultura@ttakun.eus helbidera idatzita eman daiteke izena.

COVID-19a tarteko, elkarteak jakinarazi du ikastaroetako plazak

mugatuak izango direla, indarrean dauden osasun neurrien arabera. Ttakuneko bazkideek 22 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeagatik, eta bazkideak ez direnek, berriz, 25.

Bestalde, Xumela koruko lagunak entseatzen hasiko dira irailaren 20an, astelehenarekin. Oriarte Landaberri institutuan elkartuko dira, eta ordu erdiko saioa egingo dute, 19:30etik 20:00etara. Xumelak eta Ttakunek taldeko kide izatera animatu dituzte lasarteoriatarrek.



Ione Artola (erdian) eta ikasle talde bat, iaizo azaroko ikastaroan. TXINTXARRI

Txema Pikabearen 'Lía' nobela beltza, garaile

Letramerekin kaleratu du herritarrak bere bigarren idatzizko lana, eta hain zuzen ere, argitaletxe horrek antolatu duen sari banaketan lortu du nobela beltz onenaren saria. Sari banaketaren berri eman dio TXINTXARRI aldizkariari



Txema Pikabea, Primeros Premios Letrame 2021 saria eskuetan duela. TXEMA PIKABEA

Txintxarri

Iragan martxoan argitaratu zuen Txema Pikabea Bereziartuak (Lasarte-Oria, 1971) *Lía* izeneko bere azken idatzizko lana. Letrame argitaletxearekin argitaratu du nobela, eta hain zuzen ere, argitaletxeak antolatutako Primeros Premios Letrame 2021 sari banaketako garailea izan da, nobela beltzen sailean.

Oraindik ere "gertatutakoa sinetsi ezinik" aurkitu du aldizkariako kazetariak idazle lasarteoriatarra: "Espainia mailan mila lan baino gehiago aurkeztu dira, eta horien artean, nirea lehenengo hiruen artean

sailkatzea sekulakoa izan da; eta irabaztea, berriz, izugarria. Ezin dut sinetsi".

Aurrez esan bezala, nobela beltzen sailean lehiatu da *Lía*, hain zuzen ere, mota horretako idatziek izan ohi dituzten ezaugarriak betetzen dituelako Pikabearenak ere: "Trama bat aurkezten da, amaieran zuzenduko dena, eta, hain zuzen ere, misterioak amaierara arte eusten diolako da nobela beltza. Hiru edo lau istorio kontatzen dira, elkarren artean lotzen direnak. Korapilatsua da istorioa, pixkanaka askatzen doana".

"Idazten jarraitzeko bultzada"

Pikabeak kontatu du nobelak idaztea ez dela bere ogibidea, gustuko duelako egiten duela: "Idaztea gustuko dudalako egiten dut, eta sortzen dudana jendearen atseginekoa izateko ahalegina egiten dut. Irakurleek gogoko izatea da niretzat garrantzitsua".

Sariketarako lehen hiru onenen artean sailkatu zela ikusi zuenean "sekulako poza" hartu zuen herritarrak, baina, "ahalik eta lasaien" hartzen saiatu da: "Izugarritzko poztasuna sentitu

du; idazten jarraitzeko bultzada eman dit sariak". Hori bai, ingurukoek behin eta berriro lehen saria irabazi zezakeela esateak, gertuko itzaropen horrek "presio apur bat" ere sentiarazi diola aitortu du: "Niretzat finalean egote hutsa sekulakoa izan da".

Nobela beltz onenaren sari gisa garaikur bat eskuratu duela kontatu dio aldizkariari. Almeriako (Espainia) El Ejido herrian egin dute sari banaketa, eta ekitaldi horren inguruko zenbait xehetasun ere eman ditu: "Bost izarreko hotel batean elkartu ginen, lorategi eder batean, *photocall* eta guzti".



2021-2022 ikasturtea

Izena eman Lasarte-Orian!



Akademia

zitek zientzi eskola

- ZIENTZIAK • HIZKUNTZAK
 - BANAKAKO ZEIN TALDEKO KLASEAK
 - AURREZ AURREKO SAIOAK EDO ONLINE
- ZUK AUKERATU!!

Tel: 943-36 31 06
Goikale 12, behea LASARTE-ORIA
www.zitek-akademia.com • info@zitek-akademia.com



Euskaltegia

eman izena!

aek
euskara praktikoa

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
• AURREZ AURRE eta
AUTOIKASKUNTZA bidez.
• MINTZA-TALDEAK:
Astean 2 egunez.
Munteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria
• 607 62 52 33 • lasarte@aek.eus
www.munteri.blogspot.com




Korua

XUMELA
KORUA
ZATOZ GUREKIN
ABESTERA!
ASTELEHENETAN ORIARTEN
19.30EAN ELKARTUKO GARA
(IRAILAREN 20AN HASIKO GARA)
Koruko kide izan nahi baduzu
deitu 616 43 21 69

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:

943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus



“Flipa

txo...”

Zu ere harrituko zara, edo ez.
Poztu, edo haserretu. Baina ziur
baduzula interesa eta zeresana.
Jakinmina eta irizpidea duzulako.
Giroan zabiltzalako.

berria

zuk badakizulako

Oriarteko pintaketak gaitzetsi dituzte

Berrehun bat lagun batu dira Okendo plazan, aSunak neska* gazteen taldeak egindako deiari erantzunda. Lasarte-Oriako Udalak ere arbuiatu du gertakaria: udal korporazioak adierazpen instituzional bat onartu du iraileko ohiko udalbatzarrean

Txintxarri

Ez da halakorik gertatzen den lehen aldia, ezta kontrako jarrera erakusten dutena ere. Irailaren 9an Oriarte Larrekoetxe institutuko patioan agertutako pintaketa "faxista, matxista, sexista eta homofoboak" gaitzesteko elkarretaratzea deitu zuen talde feministak eta erantzun jendetsua jaso.

Pankarta atzean zenbait minutu igaro ondoren, taldeko kide batek idatzi labur bat irakurri zuen. Deitzaileen iritziz, gertakariak "erakusten du biolentzia zisheteropatriarkalak eguneroko zeharkatzen gaituela, askotariko eraso eta biolentziak jasaten baititugu. Feminismoa interseksionala izanik, garrantzitsua iruditzen zaigu sistema honek eragiten dituen zapalkuntza oro agerian uztea, kontuan izanik eraso hauek guztiak sistema honen baitan ematen direla eta ez direla kasu isolatuak".

Hori horrela, eraso guztiei erantzungo dietela ere iragarri zuten, herrian gertatutako hainbat eraso salatzeke egin izan duten moduan. "Argi utzi nahi dugu horrelako indarkeriaren aurrean irmoki erantzungo dugula. Erasorik ez, erantzunik gabe. Gora borroka feminista!", berretsiz amaitu zuen hitzartzea.

Adierazpen instituzionala

Lasarte-Oriako udal korporazioak ere gertakaria arbuiatu du hilabete honetako ohiko udalbatzarrean, eta adierazpen instituzionala kaleratu. Oriarte Larrekoetxeke patioan egindako pintaketak "deitoragarriak" direla adierazi du: "Irainak, deskalifikazio

ASUNAK: "IRMO ERANTZUNGO DUGU HORRELAKO INDARKERIAREN AURREAN"

pertsonalak, gorroto-mezuak eta gure Estatuaren historia modernoko etapa okerrenetako bati egindako bibak gaitzesgarriak dira argi eta garbi".

Mezu xenofoboak, aniztasun sexualaren kontrakoak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borrokaren kontrakoak eta gorroto mezuak "ugaritzen" ari direla azpimarratu du korporazioak, "ideologia ultraeskuindarreko alderdiek gero eta sostengu handiagoa duten heinean. Inoiz existitzeari utzi ez dioten talde horien diskurtsoak publikoagoak dira egunetik egunera, botere ekonomiko eta komunikabide batzuen babesarekin".

Instituzio publikoek "gotorki" defendatu behar dituzte justiziaren, berdintasunaren eta demokraziaren balioak: "Berdintasunaren sustapena eta dibertsitatearekiko errespetua indartu behar ditugu, eta eskubide pertsonalen nahiz



Dozenaka herritarrek bat egin dute elkarretaratzearekin. TXINTXARRI



Erasorik ez erantzunik gabe. Nahikoa da! Autodefentsa feminista izan da leloa. TXINTXARRI

sozialen arloan egindako aurrerapausoetan muturreko jarreretatik atzera eginarazi nahi digutenei bidea itxi".

Lasarte-Oriako Udalak adierazi du "balio horien alde lan egitera" konprometitzen dela: "Mugimendu feministaren aldeko borroka,

dibertsitate sexualaren errespetuaren aldeko borroka eta im m i g r a n t e e n g a n a k o errespetuaren eta integrazioaren aldeko borroka aldarrikatzen dugu, defendatu beharreko balio moduan eta gizarte gisa aberasten gaituen balio moduan".

Koronabirusaren intzidentzia, uztail hasierakoaren pare

Datu ofizialen arabera, COVID-19ak 2.133 lasarteoriatar kutsatu ditu irailaren 15era arte, biztanleen %11,2

Txintxarri

Hilaren 15era arteko eguneratzeak aztertu ahal izan ditu TXINTXARRI aldizkariak zenbakia inprentara bidali arte, eta horien arabera, intzidentzia tasa metatua 178,52 izan da. Eusko Jaurlearitzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuak eskuetan, koronabirusaren transmisioa ez da horren apala izan uztail hasieratik -hilabete horretako laugarren egunean 173,27 izan zen tasa-. Euskal Autonomia Erkidego (EAE) osoan gertatzen ari den bezala, bosgarren olatua indarra galtzen ari da

Lasarte-Oriaren ere. Irailaren 2tik 15era 34 kasu atzeman dira, eguneko 2,3. Abuztu osoko batezbestekoa eguneko 5,2 kasukoa izan zen, eta uztailekoa, 6,1ekoa. Iazko irailekoarekin alderatuta ere nabaria da tartea: eguneko 4,9 positibo detektatu ziren, batez beste.

Joerak horrela jarraitzen badu, hilabete hau ez da izango intzidentzia gehienekoa, eta ez da gertu ibiliko ere. Irail erdia igaro dela, esan bezala, 35 positibo erregistratu dira gure herrian. 2020ko azaroan, birusaren

transmisioa puri-purian zegoenean, 275 kutsatze zenbatu zituzten, eguneko 9,2. Aurtengo apirila eta urtarrila -248 eta 215 kutsatu hilabete osoan, hurrenez hurren, eguneko 8,3 eta 6,9- eta iazko urria -218 kutsatu hilabete osoan, eguneko zazpi- izan dira orain arteko hilabete mugituenak, positibo kopuruari dagokionez.

Beterri-Buruntza eskualdeko udalerrietan, oro har, COVID-19aren eragina jaisten ari da. Gaur-gaurkoz, sei udalerririk daude eremu horian: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil.

Hilaren 15ean 147,20koa izan zen intzidentzia tasa EAEn. Orotara, 215 kutsatze atzeman zituzten hiru lurraldeetan; horietatik 64, Gipuzkoan. 6.066 proba egin zituzten positibo berriak detektatze aldera;

positibo eman zuten %3,5ek. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) ezarritako gehieneko muga baino baxuagoa (%5) izan da aldagai hori. Osakidetzako ospitaleetan 218 pertsona zeuden ingesatuta koronabirusagatik; horietatik 52 larri zeuden, Zaintza Intentsiboko Unitateetan.

Neurriak berrikusteko bilera

Birusaren transmisioaren egoera neurtzeko aldagai horien egoera kontuan izanda, Eusko Jaurlearitzaren Bizi Berri IV planaren bigarren agertokian legoke EAE. Hauek dira egoera horretan jasotzen diren zenbait neurri: ostalaritza establezimenduek 02:00ak arte lan egin dezakete, gaur egun baino ordubete gehiagoz; mahaian bueltan hamar pertsonakoa izango litzateke muga; eta 1.500 eta 5.000

COVID-19a, zenbakitan

- **178,52** Lasarte-Oriako intzidentzia tasa irailaren 15ean, uztailaren 4tik erregistratu den baxuena.
- **34** kutsatze irailaren 2tik 15era, eguneko 2,9.
- **2.133** herritar kutsatu ditu COVID-19ak 2020ko martxotik hona.

pertsonako edukiera arteko establezimenduetan, espazio itxietan 800 lagun asko jota, eta 1.200 aire zabalekoetan. Ikusteke dago zer erabakiko duen batzorde horrek, baina baliteke orain arte aipatutako neurrietako batzuk indarrean sartzea.



Donostia Arraun Lagunak eskifaiaiko kideak, Kontxako Bandera jaso ostean, badian zeuden zaleekin ospatzen. DONOSTIAKO FESTAK

Donostian geratu da Kontxako Bandera

Donostia Arraun Lagunak-ek denboraldiari amaiera paregabea eman dio XVI. Emakumeen Kontxako Bandera garaituz. Hondarribia Bertako Irogailuak-ek bosgarren postuan amaitu du lehia; Euskotren ligan mantetzeko lehiatuko da orain

Txintxarri

Lehenengoz eskuratu du Emakumeen Kontxako Bandera Aiora Belartietara lasarteoriatarra kide duen Donostia Arraun Lagunak-ek. Hitzordu garrantzitsuko historian idatzi du gainera bere izena Donostiako ontziak; 71 urte igaro dira Gipuzkoako hiriburuko eskifaia batek bandera azkeneko eskuratu zuenetik.

XVI. Emakumeen Kontxako Banderaren bigarren igandean aurreikuspenak bete zituzten Orio-Orialki eta Donostia Arraun Lagunak ontziek, Ohorezko Txanda bizia eta lehiatua izan baitzen.

Mirotzek hartu zuten aurrea joaneokan, zenbait unetan lehen igandean donostiarrek ateratako aldeari buelta emanda; zia bogan

egindako maniobra onak eta bueltako luzean egindako lanak, ordea, aurretik jarri zuen *Lugañene*. Horiak ahalegindu baziren ere, etxeko trainerua nagusitu zen helmugan.

Bandera buruan zuten Belartietak eta kideek, eta helburua lortu zuten. Eta ez edonola, gainera. Emakumeen Kontxako Banderarik azkarrena

Ostadar SKTko Erregional Gorenak, kostatako garaipena

Hernani 3-2 garaitu du denboraldiko lehen partidan. Gainerako neurketetan, arerioak gailendu dira

Txintxarri

Behar baino gehiago sufrituta, Ostadarrek denboraldiko aurreneko hiru puntuak zakuratu ditu. Raul Pitu Rodriguez eta Unai Iribarrek prestatutako taldea hobeto zelairatu zen eta aukera garbiak sortu zituen, baina ez zuen ate aurrean asmatu, eta hernaniarrak 0-1 aurreratu

ziren. Emaizta horrekin heldu ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian indarberrituta zelairatu ziren urdin-beltzak eta markagailuari buelta ematea lortu zuten; eta nola gainera: bata bestearen atzetik sartu zituzten hiru gol. Etxeko aurreneko biak Xabi Etxeberriak eta Ivan Ruizek sartu zituzten,

eta hirugarrena, Hernaniko atezainak bere atean.

Lan zailena eginda, laugarrenaren bila hasi zen Erregional Gorena, baina zelairatu eta gutxira min hartu zuen Iñigo Gonzalezek, eta taldeak bat gutxiagorekin jokatu behar izan zituen azken minutuak. Gogotik estutu zuen Hernanik, bigarren gola sartu zuen, baina etxekoek lan izugarria egin zuten defentsan eta hiru puntuak poltsikoratu zituzten.

Hasiera zaila

Jardunaldiko garaipen bakarra izan zen Ostadarren lehen

Kontxako bandera sailkapenak

Bigarren jardunaldia

Arraun Lagunak	10.33,56
Orio	10.36,24
Donostiarra	10.48,00
Tolosaldea	10.48,46
Hondarribia	10.53,12
Chapela	10.58,10
Hibaika	11.04,00
Deustu	11.10,56

Sailkapen orokorra

Arraun Lagunak	21.05,18
Orio	21.09,50
Donostiarra	21.28,24
Tolosaldea	21.35,14
Hondarribia	21.37,94
Hibaika	21.53,16
Chapela	21.56,84
Deustu	22.05,82

izan zen, Rias Baixasen marka hautsi baitzuten sailkapenaren goiko aldean amaitu duten bi taldeek.

Ospakizun handia izan zen portuan eta Donostiako Udaletxeko balkoira ere igo ziren ontziko kideak.

Bandera ez da lortu duten sari bakarra izan. Irailaren 13an, astelehenarekin, estropadetan denborarik onena lortu zuten bi traineru gipuzkoarrei, Donostia Arraun Lagunak eta Go Fit Hondarribia ontziei, Fabrika Kultura Berriaren Adegia Saria banatu zitzaizkien.

Bosgarren postua

Intza Fernandez kide duen Hondarribia Bertako Irogailuak-ek, berriz, Tolosaldeak lehen txandan egindako denbora zuen buruan. Tolosarrek 10.48,46 behar izan zituzten ibilbidea burutzeko.

Estropadako lehen unetik Donostia Arraun-Lagunak eta Orio-Orialki urrutitu zituen talde berdeak eta Donostiarra Lacturale izan zuen erreferentzia.

Ziabogara iristeko Donostiarrek baino lau segundo gehiago behar izan zituen eta helmugan 10.53,12

denbora egin zuen. Ondorioz, bosgarren izan zen.

Sailkapen orokorrean ere izan zuen eragina bigarren jardunaldiko jardunak eta Tolosaldeak Hondarribiari aurre hartu zion laugarren postua kenduz.

Mantetzeko lehia

Hondarribiatarren eta tolosarren arteko lehiak, irailaren 18an eta 19an, jarraipena izango du; Euskotren ligako sailkatze estropadak jokatu dira Bermeon eta Portugaleten.

Intza Fernandez kide duen Hondarribia Bertako Irogailuak-ek Euskotren Ligan mantentzea du buruan. Ez da lehen aldia talde berdea kinka larrian dagoena; azken denboraldietan sailkatze estropadak jokatu eta gaintu ditu. Aurtengoan ere horretarako lehiatuko dira.

Ez ditu arerio errazak izango: Kontxako Banderan gaintu berri duen Tolosaldea, Deusto bizkaitarra eta Galiziako Cabo da Cruz. Chapela galziarrak ere parte hartu behar zuen, baina uko egin du. Jardunaldi erabakigarriak Bizkaiko uretan jokatu direnak...



Adei Zarra aurrelaria, baloia erekin. TXINTX.

taldearena. Kadete Ohorezko Mailako, zein Jubenil Mailako taldeek ezin izan zituzten euren arerioak gailendu. Kadeteek 2-1 galdu zuten Billabonaren aurka; Tolosak 4-0 irabazi zion jubenil mailako taldeari.

Hiru talde horietaz gain, irailaren 17-19ko asteburuan Ostadar Saiarre Kirol Taldeko sei talde denboraldiko lehen jardunaldia jokatu dute: Erregional Ohorezko Mailako taldea, 1. Erregionala, bi jubenil talde eta kadete mailako beste bi. Azken maila horretan, Texas Lasartearra taldeak ere ordezkartza izango du.



Antolatzaileek zehaztu dute 266 pertsonak izena eman dutela orain arte. Iaz 285 animatu ziren. TXINTXARRI

Mendiaz gozatzeko eta ingurua ezagutzeko festa

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartek III. Mendi Festa ospatuko du irailaren 26an. Izena emateko epea zabalik dago oraindik. Ibilaldi Luzea, Martxa Motza edo Ttipi-ttapa Martxa egin dezakete herritarrek. Antolatzaileek azpimarratu dute kirol ekitaldia "segurua" dela

Iñigo Gonzalez Sarobe

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) arduradunek III. Mendi Festa aurkeztu dute Antonio Mercero aretoan. Behin eta berriro azpimarratu dute kirol ekitaldi hori "segurua" dela, eta arriskurik egongo ez dela bermatu ezin duten arren, ez dutela espero ezustekorik. "Aire zabalean izango da proba eta protokolo zorrotza prestatu dugu". Esate baterako, parte-hartzaileak mailakatuta aterako dira Okendo plazatik, ordu desberdinetan. "Iaz pilaketa txiki

batzuk gertatu ziren irteeran; errepikatzea saihestu nahi dugu". Izen-emateak "erritmo onean" doazela esan dute antolatzaileek: iaz 285 pertsona animatu ziren, eta aurten, gaur-gaurkoz, 266, eta epea ez da oraindik amaitu. Bestalde, Lasarte-Oriako Udalari eskerrak eman dizkiote: "Antolakuntza lanak errazak izan dira, ez digute oztoporik jarri".

Hiru aukera

Ibilaldi Luzea, Martxa Motza eta Ttipi-ttapa Martxa, familiako kide

guztientzat. Hiru aukera izango dituzte herritarrek III. Mendi Festaz gozatzeko, irailaren 26an. LOTMEko kideek nabarmendu dute ekitaldiaren helburua ez dela negozioa egitea, baizik eta mendiaz gozatzeko eta ingurua ezagutzeko aukera ematea parte hartu nahi dutenei. Hori bai, ohartarazi dute ibilaldi luzea egiteko —30 kilometro eta 1.600 metroko desnibel positibo metatua— mendian ibiltzera ohituta egon behar dela. "Hala ez bada, uste baino luzeagoa egin

Fran Puertas, Beltzak Zarautzeko entrenatzaile berria

Senior B taldea zuzenduko du herritarrek. Ohorezko B Mailako taldearekin hainbat herritar ari dira lanean

Txintxarri

Euskal Ligako Bigarren Mailan lehiatuko den Beltzak Zarautz taldeko entrenatzaile berria aurkeztu zuten irailaren 10ean Michelingo kirolgunean. Senior B taldearen arduradun berria

Fran Puertas jokalaria ohia izango da, eta alboan izan zituen Beltzak RTko eta Zarautz Rugby Taldeko presidentek, Manu Pelaez eta Dani Higon, eta Juantxo Prieto.

Aurretik, Puertas BabyAuto-Zarautz taldeko entrenatzailea

izan da eta jokalaria garaian Espainiako taldearekin 93 norgehiagoka jokatu zituen, beste inork baino gehiago.

Herritarrek, lanean

Ohorezko B Mailako Zarautz Gesalaga Okelan taldea denboraldi hasiera prestatzen ari da. Saio horietan, besteak beste, Jokin Beloki, Beñat Arroyo, Gabi Gavilan, Mikel Ibisate, David Vega eta Adrian Apaolaza herritarrek ari dira lanean. Lagunartekoetan ere ari dira jokatzen.



LOTMEko kide ugariak parte hartu dute Axari trail proban. LOTME ELKARTEA

Beroari eta hezetasunari aurre egiten

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) lasterkariak han eta hemen ibili dira azkenaldian, mendi lasterketez gozaten. Gozaten, baina baita majo izerditzen ere, beroak eta hezetasunak estu hartu baititu parte-hartzaileak. Idiazabalen izan dira LOTMEko zenbait kide, Axari Trail Mendi Lasterketan parte hartzen. Horietako batzuek 25 kilometroko ibilbidea egin dute. Ibon Aguirre (2.36.58ko denbora egin du), Xanti Trantxe (2.53.31), Imanol Galarraga (2.57.21), Karlos Gonzalez (3.02.44) eta Javi Olazagoitia (3.11.05) lehiatu dira. Haritz Curielek, aldiz, hamabost kilometroko proba burutu du, eta 1.41.43 egin du. Elkarteko kideek TXINTXARRI-ri adierazi diotenez, parte-hartzaile guztiak amaitu dute lasterketa, eta zenbaitek "denbora puska" erdietsi dituzte.

LOTMEko beste bi kide Katalunian izan dira, Canfranc lasterketan parte hartzen. Ines Aguadok 45 kilometroko proba egin du, honako denborarekin: 9.24.59. Angel Carreterok, berriz, hamasei kilometroko lasterketa egin du (5.18.10).

Kide gehienak irailaren 26ko III. Mendi Festa "buru-belarri" prestatzen ari direla zehaztu du elkartek.

dakioke bati baino gehiagori". Modalitate horretan parte hartzeko 16 urte izan behar dira gutxienez. Martxa motza, aldiz, 13,5 kilometrokoa da, eta 650 metroko desnibel positibo metatua du. Ttipi-ttapa martxa izango da aurtengo aldiko berrikuntzetako bat. Iaz bertan behera uztea erabaki zuten, koronabirusagatik.

Zortzi kilometro ditu luze, eta familian egiteko pentsatua dago.

Izen emateak www.kronoak.com web-orrian egin daitezke. Presentzialki ere bai, irailaren 24an, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 17:00etatik 20:00etara. Parte hartzaile bakoitzak kirol kamiseta eta poltsa bana jasoko ditu trukean.



Esker-eskuin: Manu Pelaez, Fran Puertas, Juantxo Prieto eta Dani Higon. TXINTXARRI

Herritarrak, itsas zeharkaldietan lehian

Buruntzaldea IKTKo Sukunza anaiak Andaluziako hiru probetan parte hartu dute abuztu amaieran eta lehen postuetan sailkatu dira, podiumera igoaz. Irailaren 11n, Kontxako Badiako zeharkaldian ere hainbat herritar izan ziren lehian

Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo igerilariak lanean hasi dira irailaren 14an. Alabaina, igerilarietako batzuk udaran itsasoko probetan lehian izan dira. Horietako bi dira Sukunza anaiak. Andaluzia aldean hiru zeharkalditan parte hartu zuten eta bai Chiclanan bai Roquetas de Mar-en lehenen artean izan ziren.

Abuztuaren 28an, Cadizko (Andaluzia, Espainia) Chiclana herrian antolatu zen VI Travesia Brazadas Solidarias itsas zeharkaldia parte hartu zuten.

Biak 1.000 metroko proban itsasoratu eta podiumera igo ziren. Aimar bigarren izan zen, 15.39 denbora eginez; Jurgik, berriz, sei segundo gehiago behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Ondorioz, hirugarren izan zen.

Egun bat geroago, abuztuaren 29an, XV Travesia a nado Picoco Playa de Regla zeharkaldian, berriz, 1.500 metroko proba egin zuten.

Aimar sailkapen orokorreko hamazapigarren eta 20 urtez azpiko mailako bederatzigarren iritsi zen Chipionako hondartzako helmugara, 23.04; Jurgi, aldiz, orokorrean, 21garren eta 20 urtez azpiko hamabigarren, 23.16.

Irailaren 5ean, Roquetas de Marren (Andaluzia, Espainia)



Sukunza anaiak Brazadas Solidarias zeharkaldiko podiumean. BURUNTZALDEA IKT

jokatutako Travesia a nado Puerto de Agudulce zeharkaldian ere maila ezberdinetako lehen postuetan izan ziren anaiak.

Aimarrek 1.500 metroko ibilbidea zuen absolutu mailako proba egitea erabaki zuen eta garaile izan zen. Jurgi, berriz, infantil mailako txapelkunordea izan zen. Bukaera estua izan zen eta segundo batengatik ihes egin zion lehen postuak herritarri, 9.34.

Kontxan igerian

Kontxako badiaren barrena ere igerian izan ziren Buruntzaldea

IKTKo igerilari zein herritarrak irailaren 11n.

Igeriketa taldeko Jurgi Sukunza infantil mailan lehiatu zen eta Master mailan, berriz, Manu Santos. Sukunzak sei minutu eta 31 segundo behar izan zituen 740 metroko ibilbidea egiteko eta bosgarren postuan amaitu zuen proba. Manu Santosek 2.220 metroko proban 46.47 marka egin zuen.

Gainerako herritarren denborak honakoak izan ziren: Garikoitz Lopetegi 34.53, Joanes Arzallus, 37.00 eta David Morales, 48.45.



Aurrebenjamin mailako txikiak saio batean jolasean. ESKOLA KIROLA

Eskola Kirola, ikasturte berriko azken ertzak ateratzen

Irailaren 25era arte, izena ematea irekia egongo da ekainean inskripzioa egin zuten gaztetxoentzat

Txintxarri

Eskola Kirola egitasmoak urriaren 4an emango dio hasiera 2021-2022 ikasturteari. Guztia prest izate aldera, Landaberri, zein Sasota ikastetxeko guraso elkarteak eta egitasmoko kudeatzaile Ttakun Kultur Elkarteak solte geratzen diren gauzak lotzen ari dira.

Eskola Kirola egitasmoak haurren eta gaztetxoaren artean kirola sustatzea du helburu, eta horretarako, hiru programa eskaintzen ditu mailaren arabera.

LH1-LH2 mailakoek jolasen bidez kirolatara hurbilketa egiten dute, Jolas Hezi programan. Multi Kirolean zenbait kirol lantzen dituzte LH3-LH4 mailako gaztetxoek. Eta zaharrenek, LH5-LH6 maila, taldeko kirolez gozatzen dute: futbola, saskibaloia eta beste jarduera fisiko zein kirolak.

Egitasmoko antolatzaileek azaldu dutenez, 24 talde osatu

dira dagoeneko, baina ez daude itxiak. Ekainean izena eman ez zuten haur eta gaztetxoek irailaren 25era arte dute egitasmoan inskribatzeko aukera. Horretarako, dagokion ikastetxeko guraso elkartearekin jarri behar dira harremanetan.

Topaketak

Horrez gain, aurten larunbateko topaketak berreskuratuko direla jakitera eman dute Eskola Kiroleko arduradunek.

Eusko Jaurlaritzak baimendu ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiko, inguruko herrietako eta Lasarte-Oriako kirol arduradunekin bildu dira eta egitasmoko arduradunak lanean ari dira egutegi bat finkatu eta jarraitu beharreko osasun protokoloa zehazteko.

Saio berezi hauek azaroan hasia aurreikusten dute egitasmoko arduradunek eta ordurako xehetasun gehiago eskainiko dizkiete parte-hartzaileei.

Chourrautek laugarren postuan amaitu du Munduko Kopa

Paueko azken proban zortzigarren postuan sailkatu da. Finalean ibilbideko bigarren zatian arazoak izan ditu

Txintxarri

Ur bizietako Munduko Kopako azken proba jokatu zen irailaren 10etik 13ra Pauen, Frantzia. Bertan, Maialen Chourraut herritarrak esalon K1 mailan parte hartu zuen eta zortzigarren

postuan amaitu zuen lehia. Munduko Kopako sailkapen orokorrean, berriz, laugarren postua eskuratu du.

Paueko sailkatze saioetan lehen txandan egotea egokitu zitzaion Tokioko dominadunari. Jaitsiera

garbia egin, eta laugarren denbora onena osatu zuen.

Finalurrekoan ere jaitsiera garbia egin zuen herritarrak eta Paueko kanala ezagutzen zuela erakutsi zuen, 107.54 denbora eginez. Jessica Fox australiarrak bakarrik gainditu zuen Chourrauten denbora, 106.45.

Txapelketako azken jaitsieran, ordea, zailtasunak izan zituen herritarrak, ibilbideko azken zatian, batez ere.

Laugarren atea ukitu arren, denbora ona egiten zihon



Chourraut, Markkleeborgen lehian. RFEP

lasarteoriatarra. Alabaina, hamaseigarren eta hogeita bigarren atean akatsak izan

zituen eta erritmoa ere mantsotu zuen. Ondorioz, podiumeko postuetatik urrun geratu zen.

Nahiz eta Munduko Kopan Tokioko Olinpiar Jokoetako bigarren postua ezin errepikatu, Munduko Kopako laugarren postuan sailkatu da Chourraut. Lau proba jokatu dira aurten – Praga, Markkleeborgen, La Seu D'Urgell eta Paue– eta hiru finaletan lehiatu da herritarra. La Seu D'Urgelleko proban bakarrik geratu zen finaleko lehiatik kanpo.

Saskibaloia taldeak pixkanaka kantxara

Ostadar Saskibaloia ataleko Kadete Errendimendu taldeak hasiera emango dio 2021-2022 denboraldiari. Ikasturteko berrikuntza nagusia II. Senior Mailako taldearen osaera da. Saskibaloia Eskolaren harrera onak, gainera, harrobia sendotuko du

Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko taldeek era mailakatuan emango diote hasiera ikasturteari. Irailan eta urrian zehar 2021-2022 denboraldiko lehen partidak jokatu dituzte eta guztiak lanean egon arren, batzuk besteak baino denbora gehiago izango dute ligako lehen hitzordua prestatzeko.

Kantxara aterako den lehen taldea Kadete Errendimenduko izango da. Irailaren 18an, 10:00etan, Innova Hertz taldearen aurka jokatu dute neurketa, Maialen Chourraut kiroldegian.

Ataleko arduradun Endika Marrahik azaldu digunez, partida garrantzitsua izango da jokalarientzako: "Batzuk bederatzi hilabete daramatzatela jolastu gabe, eta beste batzuk, hemezortzi hilabete. Aukera ikaragarria da ukagutu normaltasunera itzultzeko".

Irailaren 5ean Maialen Chourraut kiroldegian jokatu



Ostadar Saskibaloia I. seniorra, iazko denboraldiko partida jokatu. TXINTXARRI

lagunartekoan, eten horrek izan duen eraginaz kontziente izan ziren taldeko prestatzaile Jonatan Reino eta Andoni Alduncin. Nafarroako Lagunak taldea izan zuten arerio kadeteek eta 44-68 izan zen azken emaitza.

Jokalarien jardunaz pozik egon arren, taldea sendotzeko lan

egin behar dutela ikusi zuten entrenatzaileek.

Egutegia falta

Kadetez gain, I. Senior eta Junior Errendimendu taldeek bakarrik dute egutegia finkatua.

Seniorrak Goierrri taldearen aurka jokatu du denboraldiko

lehen partida, urriaren 17an, Urretxun. Irailaren 25ean, berriz, Junior Errendimenduko taldeak Oiarso izango du aurrez aurre, Errenterian.

Gainerako taldeei dagokionez, Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak irailaren 27an deitu duen bileran denboraldiko nondik norakoak zehaztuko dituela aurreratu du Marrahik.

Berrikuntzak

Ostadar Saskibaloia atalak 2021-2022 ikasturtean bederatzi taldea izango ditu lehian. Junior Partizipazio talderik ez da egongo; senior mailan, ordea, talde berria osatu da, II. Seniorra.

Horrez gain, harrobia landu eta sendotzeko aukera izango du taldeak Saskibaloia Eskolan gero eta haur gehiagok izena ematen baitute. "Albiste pozgarria da. Harrera oso ona izan du jarduerak eta azkenaldian asko hazi da eskola".

Agurra

Bestalde, arlo teknikoan aldaketak izan dira. Senior taldearen entrenatzaile Ander Otaegik agur esan du. "Gurekin egon da lanean proiektua martxan jarri genuenetik eta denboraldi honetan ez jarraitzea erabaki du. Pertsona oso garrantzitsua galdu dugu".

Marrahik azpimarratu du zaila dela hitzez eskertzea Otaegik urte hauetan guztietan egin duen lana. Etorkizunean berriro ere

taldera itzultzea espero duela onartu du.

"Ilusioa berreskuratu"

Talde bakoitzak ikasturtean zehar bere helburua izango duen arren, saskibaloia atalak helburu nagusi bat izango duela nabarmendu du arduradun Marrahik: "Gure xede nagusia jokalarien eta entrenatzaileen ilusioa berreskuratzea da".

Kirol jardueraren federatuaren etenaren ondorioz, jokalariek askok kirola alde batera utzi dutela adierazi du. Horrek, entrenatzaileen motibazioan eragina izan duela ere atxiki du: "Igaro dugun denboraldiaren ondoren, kirola bera egitea eta hortik jasotzen ditugun emozioak jasotzea gogo ezaren erantzun hoberena dela uste dugu".

Horrez gain, Ostadar Saskibaloia alorreko arduradunak jakitera eman du lanean ari dela jokalariek aldagelak erabili ahal izateko baimena izan dezaten, eta baita ikusleak Maialen Chourraut kiroldegiko harmailetara itzultzeko ere. "Baina, oraindik, gurasoek ezingo dute haien alabak ikustera joan".

JOKALARI ZEIN ENTRENATZAILEEN "ILUSIOA BERRESKURATzea" DA HELBURUA

LOKEko judokak, lehiaketak eta azterketak prestatzen

Gorka Aristegik entrenatzen dituen kirolariek hasi dituzte entrenamenduak, kiroldegiko tatamian

Txintxarri

LOKEko Judo saila martxan da. Irailaren 8an maila guztietako haur, gazte zein helduek denboraldi berriko entrenamenduei ekin zieten, Gorka Aristegi entrenatzailearen gidaritzapean.

Mailaren arabera, entrenamendu saio ezberdinak egiten dituzte judoek astean zehar Maialen Chourraut kiroldegiko tatamian.

Hala ere, taldeko prestatzaileak azaldu digunez, federatu mailako kirolariek aurrez eman zioten

hasiera denboraldiari. Irailaren 3an eta 4an, Euskal Judo Federazioak antolatutako entrenamendu saioetan izan ziren, Donostian. Horietan, taldeko judokak eta Gorka Aristegi entrenatzaileak berak Jinnosuke Sora japoniarrekin lan egiteko aukera izan zuten.

Lehia hasiera

Aristegik azaldu modura, hasiera honetako saio horiek guztiek bi helburu ezberdin izango dituzte ikasturte honetan: lehiaketak eta azterketak.



LOKEko kideak, topaketan. LOKE JUDO

Oraingoz ez dute egutegi osoa finkatua. Alabaina, taldeko arduradunak aurreratu duenez, kadete mailako gaztetxoek emango diote hasiera txapelketa denboraldiari. Suancesen antolatutako Espainiako kopako proban parte hartuko dute urriaren 15-16ko asteburuan. Horrez gain, irailaren 25ean Tolosan kata ikastaroa izango dute, larunbatarekin.

Etxeberria, junior mailako Munduko Txapelketan

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kidea irailaren 19tik 26ra lehiatuko da Flandrian, Belgikan

Txintxarri

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Haimar Etxeberria gazteak junior mailako Munduko Txapelketa jokatu du. Irailaren 19tik 26ra 23 urtez azpiko eta junior mailako munduko lehiaketak jokatu dituzte Flandrian (Belgika) eta Irungo gazteak errepide eta erlojupeko probetan parte hartuko du.

Espainiako selekzioko hautatzaile Francisco Javier Cerezok junior mailako lau txirrindulari aukeratu ditu hitzordu garrantzitsu

horretarako. Ivan Romeo, Pau Marti eta Iker Bonillo izango dira Etxeberriaren taldekide.


Erlojupeko probarekin hasiko du lehiaketa Buruntzazpiko kideak, irailaren 21ean, asteartearekin. Knokke-Heist eta Brujas arteko 22,3 kilometroko ibilbidea egingo dute parte hartzaileek.

Errepide proba, berriz, Lovainan jokatu dute. Hiriko inguruneetara zortzi itzuli eman beharko dizkiote txirrindulari gazteek, 121,40 kilometro egin arte.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Unax
Zorionak maitia! 12 urte zoragarri zurekin, segi horren jator. Maddi, Oier, aita eta ama.



Nahia eta Miren
Zorionak bikote, 10 urte dagoeneko! Gozatu asko zuen egunaz. Muxu handi bana, gurasoen partetik.



Pili
Zorionak, Pili! Sistema berriberrazi, eta 4.2 bertsiolari ekingo diozu astelehenean! Iepa Joxepa! Bertsiolariak patata-tortila tipularekin dakar, eta guk ere dastatuko genuke zurekin batera, gustura! Ondo-ondo ospatu eta aprobetxa metxa!

Jaio da!

Eman jaiotzen berri
TXINTXARRI-N.
Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ERRENTAN EMAN
Etxebizitza bateko logela alokatzen dut, areto amankomunak erabiltzeko eskubidearekin. Harremanetarako zenbakia: 605 70 57 89.
Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidarren plazan). Harremanetarako zenbakia: 648 200 811.

LANA
ESKAINITZA
Herriko ile apaindegi eta estetika zentro batek manikura eta pedikura egiteko langile bat behar du. Harremanetarako zenbakia: 647 82 13 61.

ESKARIA
Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri

ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96.
Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.
Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.
Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest.

Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.
Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA
SALDU
Paseorako bi txirinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.
Bizikletari lotzeko erremolke doble salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpiak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia: 670 20 78 14, Amaia.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 17	GANDARIAS-URIBEL	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 18	DE MIGUEL	DE URUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 19	DE MIGUEL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 20	DE URUE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 21	DE MIGUEL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 22	LASA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
OSTEGUNA, 23	GIL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
A. Etxebarria, "Cuevas": Andrea kalea 48, Hernani. 943-55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen
Informazio gehiago www.cfgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

ESKUTITZA

Hizkuntza

URTZI AGIRRETXE

Ikastoletan kantatzeari utzi zaio Bildarratz kantatzeari. Kantatzeak emozioztatzea dakar. Emoziorik gabe, ez dago ikasketarako motibaziorik. Melodiek betirako diraute gure barne afektibitatean. Hizkuntza batek, ikasketa kognitibo positibo erlazionatu bat behar du. Milaka urtez mantendu dugu gure hizkuntza. Europan hizkuntza aurreindoeuropear bakarra.



Unescok babestu beharko gintuzte... Kantagintzari, kantatzeari esker eta bide batez enbor beretik sortuko direnei, balorea eta batasuna eman izan zaio gure gizarteari. Nik neure kabuz matematikari indarra kenduko diot, etor daitezela, arbeletako tiza gustatzen ez zaienei aholku pedagogikoak ematera. Irribarrez abestuko diegu, Matalazen hitzetan. Jaikiko gera eta, egun batez, egiazko eskualdunak! Jarrai eta segi lanean Bildarratz!! Haika mutil haika neskez animatuko ditugu ikasleak. Haika kantatzeari! Gaurkoan 3 bat jartzen dizut. Kurtso osoa dugu elkar ezagutzeko eta hobetzeko. Baina mesedez ez jarri notarik euskal gizarte emankor eta langileriari. Mesedez. Aurrera bolie.

OHARRA

Ate irekien jardunaldiak antolatu ditu Beltzak RT errugbi eskolak

Lasarte-Oriako gaztetxoei errugbia ezagutzeko aukera eman nahi die Beltzak RTk, eta horretarako, ate irekien jardunaldiak antolatu ditu irailaren 17 eta 24rako, ostiralarekin. 18:00etan hasiko dira, eta 10 (2012an eta 2013an jaiotakoak), 12 (2010-2011) zein 14 urtez azpikoei (2008 eta 2009) zuzendutakoak izango dira. Harremanetarako: 666 32 10 59.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA Xacobeo azoka
Erdi Arora bidaiatuko du Lasarte-Oriak asteburuan. Xacobeo azokaren bosgarren edizioa izango da Andatza eta Aralar plazetan, ostiraletik igandera, eta askotariko produktuen eskaintza zabala ikusi, erosi eta dastatzeko aukera izango dute herritarrek.
Andatza eta Aralar plazak, 17:00etatik aurrera.

USURBIL Kultur Bira

Santuenea auzoak jasoko ditu Kultur Bira egitasmoaren ekintzak, asteburuan eta honako egitaraua aurkeztu dute ostiralerako:

18:00etan: Toka eta igel txapelketa. Bertan parte hartzeko zaharren egoitzan aurrean eman behar da izena.

18:00etan: Plisti-plasta ur-jolasak.

22:00etan: Neona eta Viafara musika taldeek kontzertuak eskainiko dituzte. Bertaratzeko www.usurbilkultura.eus gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa da. Santuenea auzoa, 18etatik aurrera.

LARUNBATA 18

LASARTE Xacobeo azoka

Erdi Arora bidaiatuko du Lasarte-Oriak asteburuan. Xacobeo



LASARTE-ORIA Xacobeo azoka Erdi Arora bidaiatuko du Lasarte-Oriak hilaren 17tik 19ra. Xacobeo azokaren bosgarren edizioa izango da Andatza eta Aralar plazetan, ostiraletik igandera. COVID-19ak eragindako egoerara moldatu dituzte aurtengo jarduerak, baina feria "erakargarria" prestatu dute antolatzaileek. Aurtengo ediziorako tailerrak eta jarduerak prestatu dituzte antolatzaileek: ipuin kontalaria, Erdi Aroko lanbideen zein garaiko zaldunen jantzien erakusketak, instrumentu musikalen emanaldia, burdingintza tailerra... Irailaren 17tik 19ra, Andatza eta Aralar plazetan.

azokaren bosgarren edizioa izango da Andatza eta Aralar plazetan, ostiraletik igandera, eta askotariko produktuen eskaintza zabala ikusi, erosi eta dastatzeko aukera izango dute herritarrek.

Andatza eta Aralar plazak, 11:00etatik 23:00etara.

USURBIL Kultur Bira

Santuenea auzoak jasoko ditu Kultur Bira egitasmoaren ekintzak,

asteburuan eta honako egitaraua aurkeztu dute larunbaterako:

·11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era: puzgarriak.

·11:30etik 13:30era: Bizikleta slaloma eta arku-jaurtiketa.

·16:00etan: Mus txapelketa.

·22:00etan: Traka. DJ Gorkamendik girotua.

Bertaratzeko [usurbilkultura.eus](http://www.usurbilkultura.eus) gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa da.

ZINEMA

USURBIL

¿Quién es quién?

Ostirala: 16:30, 19:00.
Larunbata: 16:30, 19:00.
Igandea: 16:30, 19:00.

After. Almas perdidas

Ostirala: 15:55, 18:40.
Larunbata: 15:55, 18:40.
Igandea: 15:55, 18:40.

Dune

Ostirala: 15:45, 17:00, 18:15,

19:15, 20:30, 21:45.
Larunbata: 15:45, 17:00, 18:15, 19:15, 20:30, 21:45.
Igandea: 15:45, 17:00, 18:15, 19:15, 20:30, 21:45.

Con quién viajas

Ostirala: 15:45, 21:10.
Larunbata: 5:45, 21:10.
Igandea: 5:45, 21:10.

El bebé jefazo: negocios de familia

Ostirala: 16:00.

Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.

Free Guy

Ostirala: 21:30.
Larunbata: 21:30.
Igandea: 21:30.

Gunpower Milkshake

Ostirala: 21:05.
Larunbata: 21:05.
Igandea: 21:05.

La Patrulla Canina: la película

Ostirala: 16:50.
Larunbata: 16:50.
Igandea: 16:50.

Maligno

Ostirala: 19:10, 21:55.

Larunbata: 19:10, 21:55.
Igandea: 19:10, 21:55.

Shang-Chi y la leyenda de los Diez Anillos

Ostirala: 15:50, 18:00, 18:55, 22:00.
Larunbata: 15:50, 18:00, 18:55, 22:00.

Igandea: 15:50, 18:00, 18:55, 22:00.

Ice Road

Ostirala: 22:45.
Larunbata: 22:45.
Igandea: 22:45.

Santuenea auzoa, 18etatik aurrera.

IGANDEA 19

LASARTE Xacobeo azoka

Erdi Arora bidaiatuko du Lasarte-Oriak asteburuan. Xacobeo azokaren bosgarren edizioa izango da Andatza eta Aralar plazetan, ostiraletik igandera, eta askotariko produktuen eskaintza zabala ikusi, erosi eta dastatzeko aukera izango dute herritarrek.

Andatza eta Aralar plazak, 11:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENA 20

LASARTE-ORIA

Pintxoan

Avenida Tabernak,

Bakailao

I. Ibilbidea

Jalgi kafe

antzokiak, Escalerillas jatetxeak eta Artizar eta Arkupe tabernek, Bakailaoa Pintxoan I. Ibilbidean parte hartuko dute. Establezimendu bakoitzak prestatutako pintxoak dastatzeko aukera izango dute herritarrek.

Herriko tabernak, irailaren 20tik urriaren 3ra.

ASTEARTEA 21

LASARTE Mugikortasun Astea

Europako Mugikortasun Astearekin bat eginik, nagusien parkeko makinak erabiltzeko aholkulitza zerbitzua antolatu dute Artelatzen enpresak eta Lasarte-Oriako Udalak, elkarlanean. Ekintza hori, udal kiroldegiarekin elkarlanean antolatu dute.

Kontzeju Txiki plaza, 10:30ean.

Udako ARGAZKI LEHIAKETA txintxarri

BOZKA EMATEKO AZKEN EGUNAK

www.labur.eus/txintxarri2021

Argazkia: Diany Portinanni

SARIA **aldika** produktu bereziak

BACK TO SCHOOL

2 MÓ
99€graduatu erreflexuen
aurkako lenteekin

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943-37 74 55
LASARTE-ORIAMULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiplicas.com



Muntteri AEK euskaltegia
MATRIKULAZIOA ZABALIK

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
AURREZ AURRE eta AUTOIKASKUNTZA bidez.
MINTZA-TALDEAK: Astean 2 egunez.

aek
euskara praktikoa
eman izena!

Geltoki kalea 17 Lasarte-Oria |
607 62 52 33 | lasarte@æk.eus |
Bulego ordutegia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00

Ikasi euskara,
bidelagun onenarekin

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2021-22

%85

ONDO iBiLi!

BEKA
matrikularen
a r t e **%85** a

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

BALDINTZAK

Udaleko euskaltegia
Muntteri-AEK euskaltegia

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gainditua.

BEKA
matrikularen
a r t e **%85** a

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

BELARRIPREST

BEKA

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO